



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONÓZ
2025/09/12



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15

2025EKO UZTAILAREN30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKOOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko uztailaren 30ean, arratsaldeko 18:30tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak Bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia egin da, Santos Etxegia Oronozalkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Micaela Elizalde, M^a Mar Ansorena, Javier Auza eta Alaia Etayo.

BERTARATU EZ DIRENAK: Julen Beunza eta Iker Isiegas.

Bertaratu da baita ere Isabel Ilarregui Itsasoko kontzejuko alkatea.

18:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzearekin

GAIZERREDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Ekainaren 25eko ohiko batzarren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2025/68 alkate ebazpena onartuz Udabeko 1. Poligonoko 28. lursailan 12 oilo edukitzea, KALTEGABE deklaratzeari

-2025/69 alkate ebazpena Gartzarongo 6 poligonoko 228 eta 227A lursailetan 20 ardi edukitzea, KALTEGABE deklaratzeari

-2025/70 alkate ebazpena onartuz Telletxea Arangoak aurkeztutako aitorpen arduratsua eta aurrekontua, Beruete Otsakar etxean dagoen biltegiaren teilatua berritzeko 3.028,53 euroko aurrekontuarekin.



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAR4 P3XA X7HX HM4Y

2025-07-30 akta - SEFYCU 217658

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

7tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/09/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15

-2025/71 alkate ebazpena onartuz Ttikiena Haur Eskolak aurkeztutako 2025-2026 ikasturterako egutegiaren aldaketa., martxoaren 19a jai eguna jarritz.

- 2025/72 alkate ebazpena onartuz Arturo Bildarraz Barrenetxeak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea aipatutako NA3258J matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %100ekoa izatea.

-2025/73 alkate ebazpena onartuz Gorka Etxeberría Murillok aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea aipatutako 8551 NBZ matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

- 2025/74 alkate ebazpena Berueteko 11. Poligonoko 507. Lursailean dagoen etxebizitzari helplinea zenbakia emateko helplinea onartu, AIZPURUGAÑA PARA JEA Z/G JUANBAUTIXTENEA ETXEA.

-2025/75 alkate ebazpena Onartzea Aizarotzko parkea egin eta instalatzeko baldintza tekniko eta administratiboen plegua esleipena argitaratzeko.

-2025/76 alkate ebazpena onartuz Jose Ramon Ilarregui Manjarrezek aurkeztutako eskaera, eta Xabier Izko Perezen izenean dagoen Itsasoko 4. poligonoko 496. Lursaileko haragitarako behi ustategiaren iharduera eta irekiera baimenen titulartasuna aldatzea Jose Ramon Ilarregui Manjarrezen alde.

-2025/77 alkate ebazpena Jose Ramon Ilarregui Manjarrezek aurkeztutako eskaera onartuz, eta Jose Ramon Ilarregui Manjarrezen izenean dagoen Itsasoko 4. poligonoko 496. Lursaileko haragitarako behi ustategiaren iharduera eta irekiera baimenen titulartasuna aldatzea Transportes Iraola S.L-ren izenera pasatzea.

-2025/78 alkate ebazpena onartuz Marta Fuertes Ayensak aurkeztutako aitorpen arduratsua eta aurrekontua, Berueteko 11. Poligonoko 29. Lursailean dagoen etxebizitzaren teiltua berritzeko 24.920,21 euroko aurrekontuarekin.

-2025/79 alkate ebazpena onartzea 2025. urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 3442DBZ matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik Cristina Beunzari, itzuli beharreko kopurua 34.42 eurokoa izanik.

- 2025/80 alkate ebazpena Beramendiko 2. Poligonoko 128. lursailean 2 oilo edukitzea, KALTEGABE deklaratzeko onartu.

-2025/81 alkate ebazpena onartuz Argimalutak egin dituen bi eskaerak Luzi Goñi Kultur Etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzea yoga ikastaroa egiteko, uztailearen 17tik irailaren 25 arte ostegunetan arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara eta Apeztegiberriko eraikinaren bigarren solairuko gela erabiltzea yoga ikastaroa egiteko, abuztua eta iraileko ostegunetan 10:00etatik 11:30etara.

-2025/82 alkate ebazpena onartuz Argimalutari antzezlan bat prestatzeko Jaunsaratsen dagoen polikiroldegia erabiltzea astearte eta ostiraletan 9:00etatik 12:00etara uztailearen 14tik abuztuaren 29ra eta Apeztegiberriko eraikineko bigarren solairuko gela erabiltzea astelehen eta asteazkenetan 9:00etatik 12:00etara.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/09/12



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Xehetasun azterlana Beramendiko 2. Poligonoko 41. Lursailerako. Hasierako onespena.

Alkateak bildutakoek azaltzen die sustatzaileak aurkeztutako dokumentuaren arabera Beramendiko 41. Lursailean dagoen eraikinaren gehieneko bolumena zehaztea du helburu. Altuera igo nahi da solairua gehiago egin gabe, bertan etxebizitza bat burutzeko bizigarritasun baldintzak betetzeko Teilatuaren aleroa 6.40 metrotik 8.10 metrora pasatzen da eta horrela ere aterpea bat egikaritu ahal du etxebizitzaren luzeera guztia hartuz.

Udal arkitektoak honen inguruko baiezkotxostena egin duela adierazten du alkateak, 25/0486. Zenbakidun txostena eta hortaz hasierako onespena eman ahal zaio espedienteari 2017/1 Lurralde Antolamendua arautzen duen testu bateratuaren 74 artikulua jarraituz. Bertan arautzen da hasierako onespena eman ondoren erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan behar dela, iragartzen denetik 20 eguneko epean interesdunek alegazioak jartzeko aukera irekiaz.

Epe horretan alegaziorik ez balego behin betikoz onartu ahalko litzateke xehetasun azterlana.

Hortaz bildutakoek udal arkitektoaren txostena ikusita eta 2017/1 legeak arautzen duena kontutan hartuz, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasierako onespena ematea Beramendiko 2. Poligonoko 41. Lursailerako Mariano Hualde Lizarragak aurkeztutako xehetasun azterlanari.**
- **Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu. 2017/1 legearen 74. Artikulua jarraituz, 20 eguneko alegazio epea irekiz.**
- **Jakinarazi udalak hartutako erabakia bai sustatzaileari bai ondoko lursailen jabeai.**

4.- Itsasoko haraztegia haunditzeko iharduera eta obra baimenen onespena.

Alkateak gogoratzen die bildutakoei espediente hau 2023an hasi zela tramitazio luzea izan duela eta udal arkitektoaren txostean adierazten zen moduan bidali dute AESaren baiezkotxostena. Hortaz ikusten dira Ganasaren iharduerarekin lotutako baiezkotxostena eta udal arkitektoarena 23/0375 zenbakidun txostena. Hortaz iharduera baimenaren tramitazioa bukatu denez, 2026/22 Foru Dekretuaren 53. Artikulua jarraituz, bildutakoek aho batez onartzen, ondoren zehazten den erabakia:

Iharduera baimena ematea Nilsa entitateari Itsasoko 4. Poligonoko lursailean dagoen ur zikinen haraztegia handitzeko eta bera burutzeko obra baimena onartzea ere.

Obra egikaritzeko kontutan hartuko dira Lurralde Antolamendu Ataleko Zuzendari Orokorraren 2023/341E Ebazpena eta udal arkitektoaren 23/0375. Txostena.

Erabaki hau Nilsa entitateari eta Itsasoko kontzejuari jakinaraziko zaie.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/09/12

SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15**5.- Bake epaile ordezkkoa. Prozesuari hasiera ematearen onespina.**

Bake epaile ordezkoaren agintaldia ere bukatzeaz dagoela adierazten du alkateak, Auzitegi Gorenetik jakinarazi du izendapen prozedurari hasiera eman behar zaiola, lanpostua hutsik dagoela adierazi Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 20 egun baliodunen epean interesdunek eskaeran aurkezteko.

Aurrekoan ohikoa ez zen bezala eskatzaile bat baino gehiago aurkeztu ziren eta balorazio irizpiderik izan ezean, aurreko bake epailea berriro izendatu zuen udalak.

Oraingoan irizpidean finkatzeko erabaki hartzen dute bildutakoek eta horiek baliatuz aukeraketa egin, eskatzaile bat baino gehiago badago.

Bildutakoek eztabaidatzen dituzte irizpideak eta hauek finkatzen dituzte aho batez:

- Erroldan aitzinatasuna. 40 puntu. Puntu bat urte bakoitzeko.
- Emakume izatea. 10 puntu.
- Euskara jakitea. C1 titulua 10 puntu. B2 titulua 5 puntu.
- Udalekiko hurbiltasuna. 10 puntu. Modu honetan banatuak: 0-1 kilometro arteko distantzia 10 puntu. 1-5 kilometroen arteko distantzia 5 puntu eta 5etik gorako kilometroen distantziagatik puntu bakarra.

Hortaz bildutakoek alde batetik onartzen dituzten hautaketarako irizpideak eta bestetik onartzen dute prozedurari hasiera ematea, hots bake epailearen ordezkoa izendatzea, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea postua hutsik dagoela, interesdunek eskaerak aurkezteko 20 egunen epean.

6.- Gartzarongo udal zabortegia kudeatzeko ordenantzen aldaketa. Behin betiko onespina.

Udal zabortegiaren erabilera arautzen duen ordenantzan aldaketa bat txertatzea erabaki zela apirilaren 28ko batzarrean azaltzen du alkateak. Aldaketa honen xedea da ordenantzan ez zegoelako jasota Gartzarongo kontzejuarekin sinatutako hitzarmenaren baldintza bat, bakarrik Basaburuan egiten ziren obren hondakinak eraman ahal zirela Gartzaronen dagoen udal zabortegira.

Ordenantzaren aldaketa hau aipatu bezala apirilaren 28ko batzarrean onartu zen eta 2025eko maiatzaren 20ko NAON argitaratu. 1990/6 Flru Legearen 325. Artikulua jarraituz iragarkia jende aurrean egon da hilabeteko epean, hots uztailaren 2 a arte. Epe horretan alegazioak ez direnez aurkeztu ordenantzari behin betiko onespina





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/09/12

ematea dagokio eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu erabaki hau ordenantzaren testuarekin batera.

Hortaz 1990/6 Foru Legearen 325 artikulua jarraituz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betikoz onartzea Gartzarongo udal zabortegia kudeatzeko ordenantzaren aldaketa eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15

Gai zerrendatik kanpo badago aztergai Itsasoko urbanizazioko 496 eta 497. Lursailetarako aurkeztutako xehetasun azterlanaren hasierako onespina tramitatzeko espedienteak.

Bildutakoek aho batez onartzen dute gai zerrendan sartzea:

Itsasoko 4. Poligonoko 496 eta 497. Lursailetarako xehetasun azterlana.
Hasierako onespina.

Alkateak azaltzen du hirigintza tramitazio honen helburua dela urbanizazioak dituen gehienezko lerroak aldatzea, aipatutako lursailetan mugara dagoen 4 metroko distantzia 3 metrora pasatzea.

Gai hau hirigintza batzordean aztertu zen eta udal arkitektoak baieztatu txostena egin du, 25/0574. Txostena. Bertan adierazten du ez dagoela oztopo urbanistikorik baina behin betiko onespenerako 253/2019 FDn, urriaren 16koan, jasotako preskripzioei buruzko Nafarroako Planeamendu Erregistroa eta Nafarroako Plangintza Erregistroa Nafarroako hirigintza eta lurralde plangintzarako tresnak konttutan hartuz dokumentua osatu behar dela. Zehazki, dokumentazio tekniko grafikoa osatzen duten orriak; hala dagokionean, bere 4 izkinetako koordinatu geografikoak, erreferentziako sistema geodesikoan ETRS89 UTM 30N, EPSG gisa kodetua: 25830.

Hortaz bildutakoek konttutan hartuta udal arkitektoaren 25/0574. Txostena eta 2017/1 Lurralde Antolamendua arautzen duen testu bateratuaren 74 artikulua jarraituz, non adierazten da hasierako onespina eman ondoren erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan behar dela, iragartzen denetik 20 eguneko epean interesdunek alegazioak jartzeko aukera irekiaz, hasiera batez onartzen dute Itsasoko 4. Poligonoko 496 eta 497. Lursailetarako xehetasun azterlana eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
2025/09/12



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15

7.- Mozioak.

Ez dago moziorik.

8. - Batzordeen informazioa.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Batzordeak hainbat bilera burutu ditu eguneko egoitza martxan jartzeko gaiarekin lotuta. Lekunberriko egoitza ikustera joan ziren eta baita ere egoitza hau martxan jartzeko lagutza eman zuen enpresarekin, E3E enpresarekin. Enpresa honek egiten duen lana da aztertzea zerbitzua martxan jartzeko betebeharrak eta izapidetu, Basaburuaren kasuan, egun udalak duen elkarte merkantilaren estutetoak aldatu eta hauen tramitazioa burutu alde batetik eta bestetik ere egoitza martxan jartzeko beharrezkoak diren langileen kontratazioa kudeatu eta beste...

Horregatik batzordeak onartu zuen I3E enpresak lan horiek burutzeko aurkeztutako aurrekontua 9.000 eurokoa BEZ kanpo.

Gainera ere urritik aurrera Sasturain etxean bi ikastaro burutuko dira, bat memoriarekin lotutako eta bestea teknologia berriekin lotutakoa. Honen berri gutun bidez jakinaraziko zaie 60 urtetik gorakoei.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa:

Oihanzabal eskola kontseiluko bilera izan zen eta ikasturte bukaeran ez ohiko ihardueren gastua aurkeztuko zutela adostu.

Irakurketa bultzatzeko programa burutuko da euskara zerbitzutik eskolako hurrei bideratua eta hori kudeatzeko iraskaleendako formakuntza bat antolatzeko proposamena luzatu da aipatutako zerbitzutik udalak ordaintzeko. Informazio gehiago jasoko da honen inguruan erabakia hartu baino lehen, kontutan hartuta jada Hezkuntzak agintzen dizkiela irakasleei formakuntza orduak.

Oinarri elkartearekin bilera izan du batzordeak, hauek egiten dituzten ikerketa eta planak dira hau txikiak komunitatean parte hartzearen ingurukoak, herri hezitzaileak sortzeko aukerak aztertuz.

Bukatzeko adierazten du Tikiena zuzendariarekin bilera burutu zela ikasturte bukaeran, bertan hitz egin zela ikasturteko emaitza ona izan zela eta hurrengo ikasturtea 12 hurrekin hasiko duela baina aurreikusten dute 16raino iristea ikasturtean zehar. Langileen ordezkapenentarako zerrendak onartzearen prozesua irailetik aurrera martxan jartzea adostu zen eta eskolak sortzen dituen dokumentu eta argazkiak gordetzeko sistema (gmaila) haunditzea.

9.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/09/12



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/09/15

Azaroan Gaztain azoka eta Mendialdeko azoka ibiltariak burutuko dira. Rural Kutxaren bitartez laguntzaren bat eskatuko da. Hiru eguneko egitaraua prestatzen ari dira batzordean.

Basaburuko eguneko emaitzen txostena aurkeztu du Ireberrek eta hurrengo urtera begira Aizarotzen burutuko da.

Garraio publikoaren inguruko batzordea sortu da. Garraio Ataleko zuzendariarekin bilera eskatu da Berta Mirandarekin. Bitartean Mendialdeko udalekin elkarlanean, Donostia eta Iruña lotuko dituen garraioa esleitzeko plegua prestatzen ariko da batzordea.

Arrarasko bi bizilagunek hiru eskaera aurkeztu dituztela azaltzen du alkateak, hiruak irakurtzen ditu. Haien adierazten dutena da haien lurak ehiza barrutik atera nahi dituztela alde batetik eta ez dituztela ehiza berritzen denean bertan izan eta bestetik ehiza egun batean ehiztariekin izandako liskarraren inguruan kexa adierazten dute.

Gaia eztabaidatu ondoren modu honetan erantzutea adosten dute bildutakoek:

- Ehiza barrutitik ateratzea nahi badu orain, bere gain hartu beharko dio horrek dakartzak gastuak, biologoa eta Nafar Gobernuako tramitazioa.
- Ehiza barrutia berritzen denean ez baditu haren lursailak bertan egotea nahi hala adierazi beharko du espediente izapidetzen denean, ez du orain egin duen eskaerak balio.
- Ehiztariekin izandako liskarren inguruko kexa ehiztari elkarteari helarazi zaiola.

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:10 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.e

